ministrazio departamentuak ere azpiegitura lanetarako laguntza eman dio Udalari. Herrigunean seinalizazioa hobetzeko 10.208 euroko aurrekontua izan duten lanak egin dira eta iragarritako laguntza 940,18koa da.

## Oharra

Herriko besten argazki eta azalpenen berri udako oporren bueltan izanen dizue.

Ongi pasa oporrak!



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

**Ignacio Ariztegi eta Margarita Etxepeteleku omenduak** Uztailearen 2an Arkupeak Erretiratu eta Jubilatuen Elkarteak Gorraizen egindako bestan, Ignacio Ariztegi eta Margarita Etxepeteleku omenduak izan ziren.



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

## Zubietako joaldunak Expo Zaragozan izan dira

Uztailearen 5a Nafarroako mendialdeari eskainitako eguna izan zen Expo Zaragoza 2008 nazioarteko erakusketan. Horren harira, Zubietako joaldunak eta Elizondoko Musika Bandak gonbidatu gisa parte hartu zuten. Arratsaldean, kalejiran ibili ziren. Joaldunak izan ziren, gainera, kalejirari bidea ireki ziotenak, eta ikusleen harridurarako eta gozamenerako batera eta bertzerara ibili dira euren joariak astintzen. Elizondoko Musika Bandak, berriz, biribilketak eta pasodobleak eskainiz egin zuen bere itzulua, Rosa Maria Santxezen zuzendaritzapean.

**LEGARRA**  
ESKOLAKO MATERIALA  
PRENTSA

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

**PAGOLA**  
EMBUTIDOS  
artesanos desde  
1940

Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

**Kimetz**  
Bakarandona

Uztailearen 14tik  
aitzinerara irekia

**XATURETXEA**  
ZABIA  
JATETXEA

T: 948 637 260 • LESAKA



## GAZTELU

# Santo Domingo bestak abuztuaren 1etik 4ra

Igande eguerdian aizkora apustua izanen da, eta arratsaldean pilota partidak

### Ostirala 1

**20:00etan** suziariak. Ondotik txistulariak herrira alaitzen ibiliko dira. **21:00etan** zopak herriko ostatueta. **00:30ean** dantzaldia AGERRALDE akordeoilariarekin.

### Larunbata 2

**11:00etan** kalejirak. **Goizez eta arratsaldez** haurrentzako puzgarriak. **17:00etan** mus txapelketa. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia GARRASI taldearekin.

### Igandea 3

**10:00etan** kalejirak. **13:00etan** aizkora apustua. **17:00etan** pilota partidak (Erreka pilota eskolakoak).

**18:30ean** trikitixa erakustaldia. **20:00etatik 22:30era** dantzaldia AGERRALDEarekin.

### Astelehena 4

**09:00etan** gosaria plazan: **11:00etan** MEza Nagusia. Ondoren salda beroa herriko ostatuan. **14:30ean** herri bazkaria. **Arratsaldez** partxis txapelketa eta dantzaldia ANXETArekin. **22:00etan** afaria eta ondoren Gaixoa Ni.

JUANA M<sup>a</sup> OTEIZAK  
UTZITAKO ARGAZKIAK

**Goiko argazkian, haurrak** jokueta ari dira; **behekoan, berriz, eskolako ikasleak** ageri dira. **Aurtengo beste**tan ere hurrekez dute aspertzeko astirik izanen.



[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)  
**ERREZETA BILDUMA**  
tradiziozko errezeta  
gozagarriak

 **TXARUTA, S.L.**  
Iturgintza • Kalefakzioa • Gasua  
engi pata  
bestaki Tfnoak: 948 451 728 • 659 770 015  
GAZTELU

**ARTEKARI TALDEA**  
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESACA: Bittiria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050  
BURLATA: Lo Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

 **bentamiguel**  
denda, jatebrea eta ostatur

Engi zaindutako sukaldaritza  
Menuak aukeran

Tabakoa  
Likorrak  
Janaridenda  
Urdaitegia

Ibardingo Lepoa - © 948 631 209



## BEINTZA-LABAIEN

# Herriko bestak abuztuaren 1etik 5era

Larunbatean, abuztuak 2, aizkora apustu ikusgarria izanen da arratsaldean

## Ortzirala 1 (Beintza)

**20:00etan** altxaferoa bestei hasiera emateko. **Ondotik** kalejira txistulariekin. **21:00etan** zopak Itturondo elkartearen. **Gauetz** dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.

## Larunbata 2 (Labaien)

**11:00etan** kalejira txistulariekin. **13:00etan** herri kirolak. **17:00etan** haurrentzako jokoak. **19:00etan** aizkora apustua: M. Mindegia-P. Mindegia, D. Larretxea eta Arriaren kontra. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.

## Igandea 3 (Beintza)

**11:00etan** kalejira txistulariekin. **12:00etan** Meza Nagusia. **13:00etan** herritarren arteko aizkora apustua. **17:00etan** haurrentzako jokoak. **18:00etan**

segalariak: Gabilondo-Artiaga, Altzo eta Mitxelenaren kontra. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

## Astelehena 4 (Labaien)

**11:00etan** kalejira txistulariekin. **11:00etan** plater-tiroketa. **17:00etan** mus txapelketa. **20:30ean** tortila eta postre lehiaketa. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia MODESTO akordeoiliarekin.

## Asteartea 5 (Beintza)

**11:00etan** kalejira herriko txistulariekin. **Eguerdi**an herri kirolak Perurena aita-semearen eskutik. **14:00etan** bertso bazkaria. **Bazkalondoren** karrikaz karrika itzulia txistulariekin. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia JOXE ANJEL akordeoiliarekin. **00:00etan** GAIXOA NI beste bukaera emateko.



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Goiko argazkia aretze jatean ateratakoa da, ageria da, jende aunitz bildu izan duela. Beheitian, berriz, Beintza-Labaiengo bestetan inoiz hutsik egiten ez duen ekitaldia: aizkora apustua.



Beintza-Labaiengo Udalak  
besta zoriontsuak opa dizkizue  
herritar eta bisitari guztiei

## BALEZTENA

janaridenda

erri  
fara  
bettsk, 11

Antsolantzena • BEINTZA-LABAIEN • 948 450 044

## ORBELA

Senderismoa • Albergea

### BEINTZAKO OSTATUA ATERPETXEA

Idoia • Mikel

© 948 45 00 14 • orbela@alberguesnavarra.com  
www.alberguesnavarra.com/beintza  
31753 BEINTZA LABAIEN



## ZIGA

# Sanlorentzo bestak abuztuaren 8tik 11ra

Igandean, San Lorentzo Egunean, zarpantzar eta txalaparta erakusketa izanen da

### Ortzileria 8

**20:00etan** suziria herriko trikitlariak alaituta, eta ezkil-jotzea. **21:00etan** Baztan Zopak frontoian, Etxezuria eta Ostatu Zaharrak antolatua (Txartelak Etxezuri eta Ostatu Zaharrean daude salgai). **01:00etan** dantzaldia AGERRALDE akordeoilariarekin. **05:30ean** aulki dantza Agerralderekin.

### Launbeta 9

#### Herritarren Egune

**11:00etan** haurren-tzako jokuak. **11:00etan** gazteen gosaria Elkartetxean. **11:00etan** mus mus zimizte txapelketa Etxezurian. **12:30ean** gazteak etxez-etxe ibiliko dira Aurtizko trikitilariarekin. **13:30ean** Haurren Bazkaria. **16:00etatik 19:00etara** haurren-tzako puzgarri eta quad-ak. **Ondotik** txokolatada. **20:00etan** dantzaldia AGERRALDEarekin. **22:00etan** andreen afaria frontoian. **01:00etan** dantzaldia BESTE BAT taldearekin. **05:30ean** xingarjatea. **06:00etan** korroka botatze txapelketa.

### Igandia 10

#### San Lorentzo Egune

**10:00etan** dianak. **11:00etan** Meza Nagusia. **12:00etan** luntxa herriko plazan. **12:30ean** sorpresa. **18:00etan** herri kirolak, eta ondotik gazteen arteko probak. **20:00etan** dantzaldia AGERRALDE akordeoilariarekin. **21:30ean** zarpantzar, txalaparta... erakustaldia. **Ondotik**, afaria. **00:30ean** dantzaldia AGERRALDEarekin.

### Astelehena 11

#### Zikiro Egune

**11:00etan** mus zimizte txapelketako finala. **14:30ean** zikirojatea, bertsolari eta trikitilariarekin. Sagardoaizarenen da kupeletan eta IZADI txarangak bazterrarak alaituko ditu (txartelak salgai daude Etxezuria eta Ostatu Zaharrean). **18:00etan** maiordomo berrien aukeraketa. **20:00etan** dantzaldia AGERRALDEarekin. **22:00etan** zikiro afaria. **00:00etan** dantzaldia AGERRALDEarekin eta ondotik GAIZUA NI. **05:00etatik aitzinera** desafioa 2007-2008ko maiordomoen eta maiordomo hautatu berrien artean.



ARGAZKIAK: ARANTXA GAMIOK UTZITAKOAK ETA ARTXIBOKOAK

**Aurten ere ez da umorerik faltako Sanlorentzo bestetan.**

**t tipi**  
**tapa**  
☎ (0034) 948 635458

**J.RAMOS**  
zolak akutxilatuta eta  
barnizatzen ditut  
Sakelekoa: 637 836 023 - LESAKA

**ETXEZURIA**  
Landa etxea - Janaridenda  
Kalteteko puntu buntzarrekin  
albatzari zarbitzuzarekin  
Zura herriko denda, zura etxetik burbil  
egunero irekia  
Telefonoa: 948 452 078  
Triputxin karrika - ZIGA



## LEITZA

# Konponketa batzuen ondotik udaletxeko erlojua bere tokian jarri dute berriz

Udaletxeko ganbaran dagoen makinarekin transmisioa egitea falta da

## Joseba URKIOLA

Udaletxeko ordularia aspaldidanik geldirik egon da. Ez aurrera eta ez atzera, herritarrak plazaatik goialdera begiratzearan azkar ohartzen ziren orratzek berean zirautea. Baina pasa berri den ikasturtean arazoari konponbidea ematea erabaki zuten Udalekoek. Gauza ederra baita eskumuturrean erlojurik ez eta udaletxe erdian dagoen ordulariari erreparatu eta zein ordu den jakitea.

Eraberritzea behar bezala garatzeko, udal langileez gain, Pedro Joxe Azpirozek ere hartu du parte. Guztien helburua Tiburtzio Donearen jaietarako erlojua behar bezala abian jartzea zen. Badirudi nahia egi bihurtuko dela. Udaletxeko ganbaran dagoen makinarekin oraindik transmisioa egiteke dagoen arren, erlojua jada bere lekuan ezarrita dago. Aurki eginen dute transmisioa eta plazako erloju zaharra betiko ibilbidea egiten hasiko da.

## Plazaola aldizkari irabazleak

Jada badakigu nor diren 2008ko Plazaola al-

dizkariko azalaren irabazleen izenak. 16 urtetik gorako mailan, Koldo Fagoagak lortu du garaipena. Fagoagaren lana jaietako azal ofiziala izanen da.

16 urtetik beherako sailean, Lierni Sestoraintzat izan da lehen sa-

ria. Gaztetxoaren lana al-dizkariaren barnean agertuko da.

Parte-hartzeari dagokionez, aipatu, bi hauek gain aurtengoan Jasone Sagastibeltzak, Maialen Gonzalezek eta Maxux Eskudero hartu dutela parte.

Urterobezala saribanaketa abuztuaren 10ean izanen da. Fagoagak 150 euroko saria eta txupinazoko ekitaldian udaletxean egoteko abagunea izanen du. Liernik, berriz, marrazketa-ekin lotutako sorpresa bat izanen du zain.

## Manu Lasarte bere lekuan da

2006ko Tiburtzio Donearen jaietan izan zen ezustekoa. Manuel Lasarte kalean zegoen bertsolariaren irudia bururik gabe geratu zen. Gertakariak ezustea eta tristura sorrarazi zituen herrian. Nekez ulertu baitzitekeen gisa hartako artelana parranda baten ondorioz bazterrean geratzea. Bi urte beranduago urak bere bidera etorri dira. Mikel Lizarraga artistak Lasarteri burua bere lekuan ezarriaz artelanak betiko nortasuna eta itxura berreskuratu du.

## Laffageren erailketa gogoan

*Eraso sexistarik ez!* Nagore gogoan lelopean, uztaillaren 11n hainbat herritarrek Nagore Laffageren heriotza salatzeke elkarretaratzea egin zuten Lopeneko iturrian. Nagore Laffage uztaillaren 6an indarkeria zantzuekin hilik agertu zen. Leitzarrek bada, Euska Herriko hainbat txokotan bezala, erailketa salatu eta honelako gertakari gehiago ez sorrarazteko nahia plazaratu zuten.



ARGAZKIAK: PABLO FEO ETA TAILERRETAKO ARDURADUNAK

## Ekintza ugari hornitutako uztaila

Udan ez gelditu etxean lemapean Udalak, Euskara Zerbitzuak eta Leitzaldeko Gizarte Zerbitzuak etxeko txikienei zuzenduriko tailerrak emankor eta oparo dabilta. Ekainaren 30ean eman zitzaizen hasiera eta astero ekintza eta aktibitate desberdinekin hainbat gauza ikasi eta egiteko parada izan dute. Lehenengo astean arkitektura eta olinpiadak izan zituzten gai nagusi. Bigarren astean, berriz, uztaillaren 7tik eta 11ra, birziklapena eta natura-ura izan zituzten ikasgai. Aurreko astean, sormenaren alorrean argazkia, argia eta koloreekin jolastu eta gozatu zuten. Gorputz mugimenduei dagokien alorrean, musika eta dantza izan zituzten aztergai. Azken hauek, gainera, uztaillaren 16ean Oskar Estangaren parte-hartzearekin gogotik gozatu zuten. Perkusioa oinarri, hainbat gauza egiteko parada izan zuten. Orain, hilabeteari behar bezalako amaiera eman nahian, azken ekintzekin dabilta. Gustura igaro dute uztaila gazte askok eta askok eta arduradunen ustez «*aberatsak*» eta «*emankorrak*» izan dira.





## ARESO

# Kutsagarriak ez diren hondakinentzat edukiontzi berria jarri dute Olazarren

Burezurraren irudia ez duten tresnentzat izango da

Juana Mari SAIZAR

Orain arte Olazar aldean zegoen toki itxi bat tamaina haundiko hondakinak uzteko erabili izan da. Hemendik aurrera, ordea, ez da horretarako erabiliko, puntu berdea edukiontzi jarri dute lako leku horretan, 7 tonakoa. Kutsadura eragiten ez duten tresnak botatzeko izango da. Beraz, kotxearen gurpilak, pintura ontziak eta disolbatzaileak –burezurra edo kalaberaren irudia duten produktuak– ez dira horretara bota beharko.

### Egur loteak

Sutarako egur loteak ateratzeko pista bat eginen du Gorriz enpresak. Udalak egindako deian enpresa hori izan da aukeratua eta bera arduratu da obraz.



ARTXIBOA

**Sokatira taldea laugarren 600 kiloko mailan**  
Aresoko sokatira taldeak uztailaren 12an Erandion (Bizkaia) Euskadiko Lur Gaineko Sokatira Txapelketan, 600 kiloko kategorian, laugarren postua eskuratu zuen. Oso lan polita egiten ari dira, taldea osatzea zenbat kostatu zitzaien ikusita, eta gainera, denbora eta esperientzia gutxi dutela kontuan hartu behar da. Animo, beraz, eta jarraitu lanean!

## LEITZALDEA

# Beharren txostena kaleratu du Agenda 21ek

ttipi-ttapa

Mendialdeko, eta horrenbestez, Leitzaldeko Agenda 21eko lantaldeak Leitzaldeko errealitatearen osoko Análisi-Diagnosi txostena aurkeztu du. Hainbat bilera, elkarrizketa, datu bilketa eta abar egin eta guztien azterketa eta balorazioaren ondotik lortutako txostena da berriki kaleratu dutena. Hortik abiatuta egingen da sendotasun eta hobetze-arlo nagusienei erantzuna emanez Ekintza Plana. Txostenaren CDak –eta batzuetan idatzizko aleak– Arano, Areso, Goizueta eta Leitza-ko udaletxeetan eta Cederna Garalurren goitizan daude.

edredoi-azal nordikoak

albornozak

mantelak

edredoi nordikoak

kuxinak

ohe estalkiak

maindireak

toailak

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

udako eskaintzak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634



## GOIZUETA

# Kezka sortu du Osasunbideak herria larrialdietako medikurik gabe utzi izanak

Uztailaren 7an paratu zuten indarrean neurria

## Esteban AROTZENA

Ingurumari hauetan ez omen da Osasunbidearen behar guztiak estaltzeko adinako medikurik. Gurea, eta dirudenez, beste hainbat herri, larrialdietako zerbitzurik gabe uztea ekarri du gabezia honek, eta jakina, egonezina eta kezka nagusitu da herriarregan.

Goizuetako, Leitzako eta Aresoko alkateak eta hiru herrietako medikuak elkartu ziren berria jakin bezain pronto. Aipatzekoa da, hilaren 7tik indarrean dagoen garrantzi handiko neurri honen berri lau egun lehenago eman zuela Osasunbideak. Aipatutako hiru udalen eta Aranoren jarreara amankomuna omen da arazo honen aurrean: ez dute onartuko inolako aldaketarik osasun zerbitzuan. Beraz, larrialdien eta pediatriaren (hau ere kendu dute) atentzioa hilaren 7a arte zen bezalako izatea exijituko diote tinko Nafarroako Go-

bernuari.

Azken urte hauetan Joxe Jabier Etxeberriak eduki du bere gain Goizuetako eta Aranoko larrialdietako ordu gehienak estaltzeko ardura. Leitzako Osasun Zentroko bi medikuk alde egin dutelako Etxeberria harat eraman du Osasunbideak, eta orain, Leitzatik atentitzen ditu lau herrietako larrialdiak. Neurri hau ez dute gustuko leitzarrek ere, deiren bat dela-eta, medikua Goizuetan edo Aranon baldin badago, zerbitzurik gabe aurkitzen baitira bertan.

Joxe Jabierrek berak ez du uste arazoa berehala konponduko denik. **Ttipi-ttapari** adierazi zionez, egoera honetara ailegatuko zela begibistan zegoen aspaldian, baina ez du neurririk hartu Iruñak. Medikua falta, dau-denen lan baldintza de-segokiak... Arrazoi bat baino gehiago elkartu omen dira gauzak dau-den bezala egoteko. Beraz, irtenbide errezik ez

du ikusten Urrutinekoak. Dena den, ondorengo hiru hilabeteren barreranean egoera hobetu

litekeela uste du Etxeberriak Osasunbidea eta medikuen artean lortze-ar dauden zenbait akor-

diori esker.

Bien bitartean, des-graziaren bat gertatzen ez bada, gaitzerdi.



ARGAZKIA: XAPO ALDIZKARIA

## Kalean da 'Xapo'ren ale berria

Jende kopuruz murriztu xamarrik aurkitzen den arren, Kultur Taldeak zuzen eutsi dio urteroko hitzorduari, eta Xapo aldizkariaren zazpigarren alea etxez etxe banatu da dagoeneko. Elkarriketa interesgarriak, bidaia zozagarriak, testigantza hunkigarriak (Lidia Montesinos, Txomin Garmendiak Aimarri paratutako bertsoak...) eta beste hainbat kontu eta gai interesgarri aurkituko ditu irakurleak Xaporen 28 orrialdeetan.

**Behetik**  
AULKI JASOTZAILAK

Aforagabiki 14  
Tel: 943 372 870  
Fax: 943 372 870  
Fax: 943 365 586  
behetik@behetik.com  
20018 DONOSTIA

*Maderas*  
**GOMEN**

Tel: 948 580 645  
Zaldubia industrialdea  
IRURITA

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroa: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...



## ZUGARRAMURDI

# Ordutegi berria izanen dute leizeek eta Museoak irailaren 21a arte

Bertzalde, Xaretako hiru margolarien erakusketa zabalik dago Museoan

### ttipi-ttapa

Hainbertze tokitan bezala, Zugarramurdi-ko leizeetan eta Sorginen Museoan udarako ordutegia aldatu da. Herriko turismo baliabideetara sartzeko udako ordutegi berezia hau da uztailaren 1az geroztik, eta irailaren 21era bitarte horrela izanen da.

Leizeak egunero irekita egonen dira 10:30etik 20:00etara bitarte. Museoa, berriz, astelehenean, egun osoan, eta astearte goizean itxita egonen da. Gainerakoan, asteartean arratsaldetan 16:30etik 19:30era egonen da zabalik, eta bertze egunetan, goiz arratsaldez, 11:00etatik 19:30era.


Sarreretako prezioei dagokienez, leizean sartzeko hiru euro eta erdi ordaindu beharko dute helduek eta bi euro haurrek. Museora sartzeko, berriz, lau euro ordainduko dute helduek eta bi euro hau-

rrek. Dena den, Sorginen Museoako sarrerarekin beherapena izanen da leizean sartzeko, eta alderantziz.

### MARGO ERAKUSKETA MUSEOAN

Lehen ere aipatu izan dugu Sorginen Museoak bertze funtzio bat ere baduela: goitiko seilarua erakusketak egiteko erabiltzen da. Uda honetan ere horretarako baliatuko da.

Uztail osoan eta abuztuaren lehen hamabortzaldian Xaretako hiru margolari hauen lanakikusgai izanen ditugu: Mariano Arrieta, Bixente Garzia eta Georges Labrosse *Yo-la*. Pintura figuratibo eta abstraktoa lantzen duten margolari hauen 50 bat lan ikusteko aukera izanen da. Saran bizi eta lanean aritzen diren hiru artista hauen elkargunea dugu erakusketa hau, lehenago ere elkarrekin lanean aritu badira ere.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

**Zikiro jaterako txartelak abuztuaren 9an** Bestetako hilabete eskax falta dugu, eta dena prest dago. Gehien ezagutzen den ekitaldia Zikiro jatea dugu. Bazkari honek jende aunitz biltzen du urtero (800 lagun) eta sarrerak aitzinetik hartu behar dira. Aurten abuztuaren 9an paratuko dira salgai, 35 euroko prezioarekin.

**SOULE**  
hileta artea  
Tfnoa: 948 453 444  
Mug.: 629 659 583  
ARIZKUN




egoi bardot obregozo arkitektoa  
679649789 elizondo · braulio iñarte 33, 1ºD · 31700  
948250371 inurtea · irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011

**ARMUA JATETXEA**  
T. 948 599 131  
Zugarramurdi, errep. 3 km  
UGAZZAN



**MENDIALDE**  
Jatetxea  
T. 948 453 060  
N-121-B, 66 km  
T. AMAUR



Carlos Garaikoetxea Etxenike  
abokatua  
Tfnoa: 948 581 468  
Mug.: 630 354 818  
Santiago, 59 2C  
ELIZONDO





## BAZTAN

## FLASH

# Interneteko atari berria estreinatu du Baztango Udalak

*www.baztan.es* da web orria eta uztailaren hasieratik martxan dago

M. OTEIZA eta J.C. MORTALENA

Hilabete hasieran Baztango Alkate Virginia Alemanek Animako teknikariekin batera *www.baztan.es* udal web gune berria aurkeztu zuen. Tresna berri honen helburua bai baztandarrei, bai kanpoko edozeini informazio gaurkotua eskaintzea da. Hortaz, informazio turistiko, historikoa, geografia arlokoa, zein udal administrazioarekin lotura duena aurki daiteke. Teknologia berriak egunero lanean uztartzea ere nahi du Udalak.

Teledministrazioa gauzatzeko bidea ere ireki nahi dute, hau da, baztandarrek oinarriko tramiteak etxetik egiteko aukera eman asmoz sortu da atari berria. Bertze helburu garrantzitsua euskararen erabilera bultzatzea da, web orrian sartzetakoan euskaraz hartuko baitugu informazioa eta aukera bezala gaztelania agertuko da.

## Arraiozko batzartokiaren inaugurazioa

Orain dela ale batzuk aipatu bezala, Nafarroako Kutxaren zeuk aukeratu, zeuk erabaki programaren bitartez lortu-

takoari eta Udalak emandakoari esker Arraiozko batzartokia izanen du hemendik aitzinera. Hala, orain arte bilkurak egiten zizutzen Apezenetxea utzi, eta batzarleku berria erabiliko dute arraioztarrek edozein bilkura egiteko: herritarren batzarrek, gurasoenak... Eraikin berria plazan egiten ari dira, frontoi estaliaren eta elizaren ondoan. Inaugurazioa abuztuaren 15ean egingen da.

Bertzalde, Arraiozen egin nahi den merkataritza-gunea dela eta, herri sarreran biribilgune berria eraikitzen ari dira.

## Carlos Mugiroren testua irudian

*Apuntes para un retrato sobre el otro.* Halaxe du izena Carlos Mugiro elizondarraren testuan oinarriturik Iruñeko Sanferminetan grabatzen hasi ziren laburrak. Sergio Oksmanen zuzendaritzapean grabatuko da, bifasetan banatua: Iruñean—dagoneko egin da— eta AE-Betan—irailean—. Laburrak 60.000 euroko aurrekontua du eta Iruñeko Punto de Vista Jaialdian aurkeztu nahi lukete.

## Kintoko belagaien kanona

Erroibar eta Baztango Udalek 139.924,80 euroko txeketa jaso dute aurten Kintoko belagaien aprobetxamenduen harira. Kopuru hori 2007-2008ko aprobetxamenduari dagozkan kanona da. Paraje horien kanon hau 1856. urtean sinatu zuten, Mugen Nazioarteko Tratatu egin zenean. Alde bakoitzaren mugak zehaztu ziren orduan. Txeketa Begoña Sanzberro kontseilariak eman zien.



ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

## Saharako neska-mutikoei ongietorria

Uztailaren 17an gure eskualdera etorri diren Saharako haurrei harrera egin zitzaizkien Balleko Etxean. Aurten 11 haur etorri dira, iaz baino 2 guttiago. Virginia Aleman alkateak familiei egiten duten lana eskertu nahi izan zien eta haur bakoitzari opari batzuk banatu zizkien. Hauek alai jaso zituzten.

**POTTOKI**  
Baztanberri Plaza, 3 - behea  
31700 ELIZONDO (Nafarroa)  
Tfnoa: 948 581 983  
info@pottoki.com  
www.pottoki.com  
Astelenehietik larunbatera:  
9:30 - 13:30  
16:30 - 20:00

**MENDI ostatua**  
Santiago 25  
948 580 313  
ELIZONDO

## Done Jakue Bidearen Baztango zatian ibilaldi gidatuak

Bigarren urtez jarraian, Urdazubi-Baztango Done Jakue Bideko Lagunen Elkartek eta Bertizko Partzuergo Turistikoak ateraldi gidatuak antolatuta dituzte Done Jakue Bideak Baztan-Bidasoaldean egiten duen zatian barna. Zerbait ateraldi daude iragarriak, eta lehenak uztailaren 12an eta 19an izan ziren. Bertze bi ateraldi ere egingen dira: abuztuaren 9an eta 23an. Denak ere Amairuko elizatik abiatuko dira, eta hiru orduko iraupena izanen dute. Amaiurtik hasi ondok, Urrasun, Azpilkue, Ordoki, Arizkun, Aintzialdeko galtzada, Arizkun eta Ursuan barna pasatutakoan berriz Amaiurrera itzuliko da. Bidean Elkartek azken urteotan egin dituen moldaketa lanak ikusteko aukera izanen da, eta horien artean, aurten estreinakoz, Urrasungo Santiago ermita eraberritua. Eskualdeko historiari buruzko informazioa ere eskainiko da. Ateraldi hauetan parte hartzeko aitzinetik Bertizko Partzuergo Turistikoarekin harremanetan jarri behar da 948 592323 telefonora deituz edo bertiz@consorciobertiz.org helbidera idatziz. Bisitaren prezioa 2,5 eurokoa da, baina 14 urtetik beheitiko gaztetxoek dohainik izanen dute. Bertzalde, irailean, Done Jakue Bidearen Uztaritz-Urdazubi zatian ibilaldi bat ere egingen da, hau ere, aurten lehenbizikoz. Eguna hurbildu ahala, Partzuergo Turistikoak xehetasunen berri emanen duela adierazi du.

**BAZTAN**

## Lekarozko ur beharrak asetzeko 640.000 euro erabiliko dira

Udalak 5,3 milioi euro gastatuko ditu azpiegitura lanetan

**ttipi-ttapa**

Ur hornidura arazoak saihesteko, presio haundiko hornidura sistema eginen da Lekarozentzat. 639.321 euro bideratuko dira horretarako eta Nafarroako Gobernuak Toki Administrazioako Departamentuak 440.911 euroko laguntza emanen du. Hala jakinarazi zuten uztailaren 4an Amelia Salanueva eta Begoña Sanzberro Toki Administrazioako eta Landa Garapen eta Ingurumen departamentuetako kontseilariak Baztanera egindako bisitan. Egun berean Arraiozko lanak ere inauguratu zituzten. Iazko uholdeen ondotik egin diren saneamendu eta zoladura lanak, Artixoko errekan egindako kanalizazioa eta zeharbideko lanak ikusi zituzten.

Lekarozko presio haundiko hornidura sistema martxan paratzea rekin batera, ura Iruritik ekarriko dute, eta bertzeak bertze, 7.400 metro hodi jarriko dituzte. Lan horiek Presio Handiko Ur Horniduraren Plan Zuzentzailearen baitan, inguruko herri batzuentzat aurreikusia dagoen irtenbidearen barne dau-



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

**Udaletxeko eta Gobernuak agintariak Arraiozera egindako bisitan, tartean herritarrak ere ageri dira.**

de. Irurita, Lekaroz, Ziga, Zigaurre, Arraioz, eta Gartzain Iruritako ur baliabideekin hornitzea aurreikusia dago Planean.

**5,3 MILIOI EURO**

**AZPIEGITURA LANETAN**

Inbertsio horri Udalak 2005-2008ko Toki Azpiegituren Planaren bidez egin dituen gastuak eta 2007ko maiatzeko uholdeen ondorioz egindako lanak gehituz gero, guztira 5,3 milioi eurokoa da inbertsioa. Toki Administrazioako Departamentuak 4,3 milioi euroko ekarpena eginen du. Halere, Arraiozko Artixoko errekan egin diren kanalizazio lanak finantzatzeari uko egin dio.

Arraiozen egin diren lanen artean aipagarrie-

nak Mardea eta Urrutia auzoan egin diren lanak daude —sareak berritu eta zolatzeko lanak—. Mardea auzoko lanek 685.815 euroko gastua izan dute eta Gobernuaren laguntza 616.425 eurokoa izanen da; Urrutia auzoko lanek 633.825 euroko aurrekontua dute eta laguntza 618.042 eurokoa izanen da.

2,8 milioi euroko aurrekontua duten lanak Aniz, Erratzu, Elbete, Elizondo, Oronoz-Mugairi, Arizkun eta Almandozen ere egin dira, edo eginen dira. Gobernuak 1,8 euroko laguntza iragarri du.

**Omenduak Gorraizen**

Uztailaren 2an Arkupeak Erretiratu eta Jubila-

tuen Elkarteak hainbat kide omendu zituen. Haien artean, aurtun Diamantezko Ezteiak egin dituzten Iruritako Legaletako Antonio Urrutia eta M<sup>a</sup> Jesus Sarratea senar-emazteak beren origarria jaso zuten, 65 urte egin dituztelako ezkondurik aurtun.

Urrezko Ezteiak egin dituzten Carlos Elizalde eta Juana M<sup>a</sup> Amigorena eta Valeriano Sanchez eta Teresa Hernandez arizkundarrak ere omendu zituzten.

85 urte bete dituzten hauek jaso zuten omenaldia: Cruz Magirena eta Ramon Migeltorena amaiurtarrak; Concepcion Zaldain arizkundarra; Beronika Barrenetxe berroetarra; Felix del Mo-

**PERTSONAIA**

**Mari Jose ZELAIETA**

**Kanariar Uharteetara bidaiari**

Birziklapenaren inguruko hainbat aholku emanez, Baztan, Bortziriak eta Malerrekana, Hiri-Hondakinen Mankomunitate edo udalen eskutik urte hasieran banatu ziren egutegiak zerematen zenbakien zozketa egin zen ekainaren 30ean Donezteben. Hain zuzen, irailan bi lagunentzako Kanariar Uharteetan aste bateko egonaldia- ren zozketa zen. 8.722a izan zen zenbaki sari- duna eta Elizondoko Beartzun auzoko Mari Jose Zelaieta Urrutia da sariduna. Laugarren urtea da zozketa egi- ten dutela, baina sari- duna agertzen den le- henbiziko aldia da.

ral elbetearra; Gregorio Bengoetxea, Braulio Iriarte eta Miguel Lezaun elizondarrak; Juanita Goñi gartzaindarra; Pilar Matxin iruritarra eta Jabiera Arrijurria leka- roztarra. Zorionak denei!

**ZJ**  
**Zalain**  
 jatetxea - hostala

14 logela bainu eta TBrekin  
 Zalain auzoa z/g  
 Tfnoa: 948 63 09 67  
**BERA**

MERTZERIA  
*Leñe*  
 LENTZERIA

Tel: 948 627 814  
 Berrito Plaza, 10 - LESABA

**Alberto RETEGI**  
 abokatua  
 abokatua

948 630 763 - Altzate, 17 - BERA



## URDAZUBI

# 'Bizkaiko Burdinaren Itsasbidea' ekimena herrira ailegatuko da abuztuaren 2an

Garai batean Bizkaitik Urdazubira burdin mea ekartzen zela gogoratu nahi da

## ttipi-ttapa

XVI. eta XIX. mendeen artean Somorrostroko (Bizkaia) burdin mea, bertze hainbat lekutara bezala, kostaldetan baina Urdazubiko monastegiko burdinoletara ailegatzeko, Donibane Lohizune eta Azkainetik igaroz. Mendeetan, Bizkaiko Enkarterrietako burdin mea lurrez eta itsasoz garraiatua zen burdinoletaraino, udako hilabeteetan. Bizkaitik zertoren materialak idigurditan jarraitzen zuen Senpere, Sara eta Zugarramurditik, Ainhoaren bazterretik ibiliz.

Historia ikertzen ari izan den taldea da Itsas-Begia Euskal Itsas Ondarearen Babesteko Elkartea eta garai bateko burdinaren garraioaren ibilbidea eginez, itzuli bat antolatu du udarako. Bira horrek, hain zuzen, Urdazubi zapalduko du abuztuaren 2an. Somorrostrotik hasiko da bira uztailearen 29an, eta Bilbo, Portugalete, Plentzia,



ARTXIBOA

**Bizkaitik abiatutako burdinaren ibilbidea abuztuaren 2ko eguerdian ailegatuko da Axularren etxera.**

Bermeo, Zumaia-Bedua, Donostia, Donibane Lohizune eta Azkainetik pasatu ondotik Urdazubira ailegatuko da.

## ZIKIRO JATEA

Egun horretarako ekitaldiak prestatu dituzte. 11:30ean burdin mea garraiatzen duen idigurdien desfilea egingen da Azkaine eta Zugarramurdi aldetik. 12:00etan ailegatuko da Axularren

etxera eta handik idigurdian burdina plazaraino garraiatuko dute. 12:30ean burdinaren itsas garraioaren omenez eraikitako oroigarria paratuko da, Bizkaiko Gallartako Mearen Museoa Udalari emandakoa. Burdinaren erosketa ere egingen da. Segidan, Gonzalo Duok gertatutakoaren inguruan solasaldia eskainiko du eta 14:00ak alde-ara zikiro jatea egingen da.

Urdazubik burdina lantzen zuenaren lekuko dira XVIII. mendean amaieraz geroztik mantendu dituen izenak: Masakoleta, Olakobizkarra, Olaburukolanda eta Landibarreko Ola.

Aipatutako ekitaldiez gain, 10:30ean txotxongiloak izanen dira eta 10:30etik 14:00etara artisauek euren produktuak erakusgai eta salgai paratuko dituzte.

## Pilotaren Unibertsoa

laz bezala, aurtengoa Pilotaren Unibertsoa jaialdia egingen da Urdazubin heldu diren ortziraletan, Bertizko Partzuergo Turistikoak antolatuta. Bigarren edizioa izanen da aurtengoa eta pilotari buruzko hainbat ekimen ikusteko aukera izanen da. Ekitaldi hauek Kultur Egunen barne egingen dira.

Uztailaren 25ean, ortzirala, 19:30ean pilotaren lau modalitate desberdinen erakustaldia egingen da frontoian, eta ondotik afaria izanen da.

Heldu den ortziraletan, abuztuak 1, 19:30ean pilota partidak izanen dira eta ondotik tortilla lehiaketa.

Azkenik, abuztuaren 8an, hauek ere ordu berean, pilota partida gehiago jokatuko dira. Pilotaren Unibertsoaren aurtengo edizioari akabera emateko, paella jatea egingen da.

**MONTXO** OSTATUA

Dantxarinetik 2 km-tara

**TABAKO-DENDA ANZAN-BORDA - VRDAZVBI**

Egunero irakia 10:30etik 02:30era

**Iñaki Alzuet margoak**

Fabrika - Berruntzak  
Dekoratzen (estuko, botakurik...)  
Plastiko - Liskatuak eta barmintzeak kalitate

Kamilea Etxea - Landibar Auzoa - 31771 URDAZUBI  
Telefonoa: 659 862 417

**sarobe**  
gaithegia okinologia

0700 eztegiara 25 bajo 1948 63 08 99  
30700 berri (navarra) www.sarobe.net

**ESIP**

Energia Berriztagarrien Instalazioak eta Injeneritzak

**Eguzki-energia termikoa**  
- Kontsumoko ura berotzeko  
- Berogailuak  
- Igerilekuko ura berotzeko

**Eguzki-energia fotoboltaikoa eta haize-energia**  
- Etxe bakarkoak elektrifikatzeko  
- Sare nagusiari elektrifikazioa sartzeko  
- Biomasa - Pelletak gaitheak

ALTSASU  
www.esipolar.com  
info@esipolar.com  
T. eta F.: 948.564.024  
Muz.: 609.74.52.25

**SARA**

**FLASH**

## Aurten 45 urte beteko ditu kontrabandisten lasterketak

Ikastolak zazpinakako errugbi taldea antolatu du agorrilaren 30erako

**Xan HARRIAGUE**

Agorrilaren 24an egingen da kontrabandisten lasterketa. Pixkanaka-pixkanaka mende erdira hurbiltzen ari da, aurtengoa XLV.a izanen baita. 18 herrik parte hartuko dute, bakoitzak bi ordezkariekin. Abiatzea 17:00etan egingen da plazatik.

Lehen kilometro eta erdian, gizonak 8 kiloko zakua eraman beharko dute, eta emakumeek 4 kiloko. Zazpi Fagoetako itzulia egin ondotik, berriz hartu beharko dute Aldunzaharreko parean. Lasterketak 9 kilometro ditu, eta parte-hartzaileek nahitaez lehengo moduan jantzi beharko dute.

Azkeneko bi urteetan Fernando Etxegarai beratarrak irabazi du. Garaipena eskuratu zuen azken saratarra Ramuntxo Lamothe izan zen orain dela 3 urte. Orduan bere bosgarren garaipena izan



ARTXIBOA

**Joan den urteko lasterketa hasiera, Xarbo Errekako galtzadan goiti.**

zen. Errekorrari dagokionez, Etxegaraien eskuetan dago, 38 minutu eta 36 segundoko denborarekin.

**Zazpinakako errugbi txapelketa**

Olhain ikastolak zazpinakako errugbi txapelketa antolatu du Integrazio Batzordearen

alde. Agorrilaren 30ean egingen da Animaineko zelaian. Errugbi taldearen laguntza izan dute horren antolatzeke, eta elkarteke kide batzuk aitzineratu dutenez, baliteke egun horretan errugbi munduko lagun famatuak horegotea. Bukatzeko zikiroa egingen da lehengo moduan, zutik.

**Erromeriak agorrilean**

Usaian bezala, Sarako Izarra errugbi eta pilota elkarteek erromeriak egingen dituzte agorrileko larunbatean. Errugbikoena lehenbiziko larunbatean izanen da, agorrilaren 2an, eta pilotarena azkenekoan, agorrilaren 30ean.

**Bat, bi hiru! Irratia abian**

Bat bi hiru! Irratia martxan da. Joan den erearotik aitzinera entzun daiteke Interneten bidez [www.radionomy.com/123helbidean](http://www.radionomy.com/123helbidean). Aniotzbeherako Bordako Fred Berruetek sortu du euskal musika zein nazioartekoa ezaugarazteko helburuarekin.

**Atxuri Urdinek urtebete**

Atxuri Urdin Errealeko peñak urte bat beteko du udan honetan. Horren kari, bazkaria egingen dute heldu den larunbatean herriko trinketean. Arratsalde horretan entrenamendurik ez badute bertan egingen dira Mikel Aranburu taldeko kapitaina eta Mikel Labaka jokalaria.

**Erakusketa**

Herriko artistek egingo dako obren erakusketa ikusgai egingen da Lurberri gelan agorrilaren hirutik aitzinera.

**Xoko txapelketako finala**

Pleka trinketeko xoko txapelketa finituxea da, eta aurtengo finalak heldu den larunbatean jokatuko dira, 9:00etatik aitzinera.

**ANTXITONEA**  
Trinketea

**Jatetxea - Ostalua**  
**Hotela - Trinketea**

**Menu Bereziak**

Braulio Iriarte karkia  
**ELIZONDO**

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

**LA VILLA**  
JATETXEA

IGANTZI • Tfno: 948 63 72 90

HERRIKO  
EXTREMO  
EDANTZEGIA  
**Café de la Mairie**

T: 0559542519  
Maixan eta Véronique

**SARA**

**ZOANSA**

SEAT  
VW  
HYUNDAI  
Audi

**MARKA GUZTIAK KONPONKETA**

Banarka, 2 - Alkaiaga Industrialdea  
**LESAKA** (sarrera Beratik)  
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505



## SENPERE

# Bi errota historikoen geroa zalantzan da Luberriako urtegiaren eraikitzearengatik

Darguyrena 1756. urtekoa da eta Choinena 1804koa

## Franck DOLOSOR

Ondarea zaintzea ez da gauza erraza Senperen. Zirikolatzeko pilota sororagarrian autoak dabilta zoingehiagokan, 1995etik 2001-erat Elizako errebotea lurrerat botatzeko agindu zuen Herriko Etxeak eta gaztelua erortzekotan da. Orain, Luberriako urtegiaren altxatzearen lanak direla eta, Urdazuri ibaia bazterrean, gorago diren bi errota arriskuan dira. Hauteziek bi errota hustu nahi dituzte eta behar bada osoki deseginen dituzte. Choin anderearen errota erosi dute jadanik. Zailtasun gehiago omen da Darguy jaunen errota erosteko. Tti-

pi-ttapak ez du erdietsi andere auzapezarekin mintzatzea gai hortaz xehetasunak izateko, baina gaia hurbiletik segituko dugu bi errota Senpereko leku paregabeak direla. Darguyrena 1756 urtekoa da eta Choinena 1804koa.

## Herriko pilotariak ohoratuko dira

Uztailaren 27an herriko pilotariak ohoratuko dituzte Ez Da Musik eta SPUC elkarteak eta turismo bulegoak. Xisteraren 150. urteurrena ospatzeko goizean luzeko partida eta arratsaldean joko garbi partida jokatu dituzte herriko zombait kirolariek.



ARGAZKIAK: ARDATZA ARROUDET ELKARTEAK UTZITAKOAK

Choin eta Darguyren errota hustu egin nahi dituzte.

## Kultur ekitaldiak udan

Uda guziz bezala, aurren ere animazio ainitz bada herrian. Elizan kanttaldia prestatu dituzte:

Errobi Kanta (uztailaren 23an eta agorrilaren 13an), Adagio (uztailaren 30an), Argilea (agorrilaren 6an) eta Oldarra 18an. Miarritzeko azken

talde hau diska berria prestatzen ari da.

Bertzalde, agorrilaren 13an, artzain xakur txapelketa egingen da herriko kirol zelaian.



Grú T n U r T I  
I CHE  
M I r r k S. L.

2 UK ZE ITZU  
EIL T KI N ET ETXE N

T SL KI U E, N STI ET  
I UNG S IT LET TI KE ZEIN HE IET

L E K, HIL I K, ESKEL K,  
E USKET KET ZE ITZU S & I K

r 3 7  
S N J SE EIL T KI

n zt 3 7  
S N E EIL T KI

El z n 5 1 5  
FUNE I ZI N  
T N T I ZI N

L tz 3 7  
LEITZ K EIL T KI

L s k 3 7  
LEK K T N T I



## EZKONTZAK

**Jose Luis Barriga Vinagre** eta **Mirentxu Biurrarena Telletxea**, Irungoa eta Kanadakoa, uztailearen 12an Beran.

**Asier Bereau Altzu** eta **Aitziber Mingedia Juanena**, Iturengoak, ekainaren 28an Iturenen.

**Mikel Gotzon Ortiz de Urbina Olaetxea** eta **M<sup>a</sup> Jose Irizabal Elizetxea**, Lesakakoa eta Donostiakoa, uztailearen 5ean Lesakan.

**Jaime Bikondo Goñi** eta **Esther Maritorenariarte**, Iruritakoak, ekainaren 14an Iruritan.

**Iñaki Garmendia Bengoetxea** eta **Ainhoa Viela Irungarai**, Arraiozkoa eta Amaiurkoa, ekainaren 28an Elizondon.

**Iñigo Unanua Bertiz** eta **Itziar Plaza Etxenike**, Elizondokoa eta Iruritakoa, uztailearen 5ean Iruritan.

**Domingo Belaunzarán Mariezkurrena** eta **Laura Zabaleta Atxutegi**, Aresokoa eta Leitzakoa, ekainaren 21ean Leitzan.



## SORTZEAK

**Ganix Rodriguez Urrutia**, Leitzakoa, ekainaren 28an.

**Kattalin Canflanca Arburua**, Leitzakoa, uztailearen 5ean.

**Oihan Telletxea Iriarte**, Berakoa, ekainaren 29an.

**Lierni Saralegi Zubieta**, Berakoa, uztailearen 3an.

**Lander Arozena Iñarregi**, Doneztebekoa, uztailearen 3an.

**Maialen Garaier Almandoz**, Lesakakoa, ekainaren 30ean.

**Julen Alegre Huarte**, Elizondokoa, ekainaren 27an.

**Brayan Josue Chamba Vasquez**, Elizondokoa, uztailearen 6an.

**Mirari Rekarte Ariztegi**, Erratzukoa, uztailearen 8an.

**Maialen Gonzalez Goikoetxea**, Sunbilla-koa, uztailearen 5ean.

**Ellande Goienetxe**, Sarakoa, ekainaren 26an.



## HERIOTZAK

**Benito Olló Morea**, Goizuetakoa, uztailearen 3an 93 urte.

**Jose Mari Pikabea Korta**, Berakoa, uztailearen 2an, 89 urte.

**Bittori Elizalde Jaimerena**, Gartzaingoa, uztailearen 3an, 85 urte.

**Maria Rosario Elizegi Jaimerena**, Lekarozkoa, uztailearen 10ean, 80 urte.

**Maria Elizalde Iturralde**, Arizkungoa, uztailearen 11n, 92 urte.

**Francisco Arretxea Elizalde**, Elizondokoa, uztailearen 11n, 57 urte.

**Maria Josefa Garaikoetxea Iturralde**, Zigakoa, uztailearen 12an, 85 urte.

**Segundo Etxebeste Bergara**, Arantzakoa, uztailearen 12an, 67 urte.


**Bienvendida Domecq Mendiola**, Legasakoa, uztailearen 13an, 72 urte.

**Blasita Arozarena Vaquera**, Urdazubikoa, uztailearen 14an, 83 urte.

**Angela Arraztoa Etxenike**, Iruritakoa, uztailearen 15ean, 96 urte.

**Pedro Martin Elorga Etxandi**, Elbetekoa, uztailearen 15ean, 73 urte.

**Lourdes Noboa Noboa**, Elizondon, uztailearen 11n, 57 urte.



**Blasita AROZARENA VAQUERA**

Urdazubín hil zen uztailearen 14an, 83 urte zituela

*Gurekin geldituko dira betirako  
elkarrekin pasatu ditugun  
momentu atseginak*

**SARRATEA FAMILIA**

Familiak eskerrak eman nahi dizkizue, momentu gogor hauetan gure ondoan egon zareten guztiei.



**Joxemanuel ZUGARRAMURDI 'XAKO'**

*Laisterregi joan zinen  
gure begietatik, baina,  
gure bihotzetan  
"dunba-dunba"  
hor zaude egunero!*

Sunbilla, 2008ko uztailearen 19an

**Rekordatorioak**  
egiten ditugu



*Nahi duzun argazki eta  
testuarekin prestatua*

KULTURKARI • Andutzeta 12, Etxalar  
Tfnoa: 948 63 54 58





**Aintzane GOÑI**  
Lesakako kopilotua

ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

#### Goizalde URDANPILLETA

Ikusi, gustatu eta egin. Halaxe sartu zen Aintzane Goñi lesakarra rally munduan. «1996an Eguzki Sportek Lesakan lehendabiziko rally sprinta antolatu zuen. Bihurgune batetik ikusi nuen rallya, eta aunitz gustatu zitzaidan. 'Hurrengo urtean hor barrenean egon nahi dut', pentsatu nuen». Pentsatu eta egin. 1997an rally batean ateratu zen kopilotu lanetan. Geroztik hortan dabil, pilotu izateko ametsik gabe, eta etxekoek eta lagunek «erotzat» hartu izan badute ere, garbi du horretan segitu nahi duela.

Gizonen mundua delakoan dago, baina ez omen du inoiz arazorik izan. «Ongi tratatzen naute», dio Goñik. Espainiar estatuan, adibidez, bi emakumezko kopilotu baino ez daude: «ni eta Kataluniako bat, eta hark bi urte daramatza rallyan atera gabe».

Deus ere ez jakitetik kopilotu profesional izatera pasatu da poliki-poliki Aintzane. Auto bat erosi eta egokitu ondotik, «lehendabiziko rallyan Bera-ko lagun baten oharren kopiarekin ateratu nintzen». Maila haundiagora pasa-

tzeko bertze hiru urte joan zitzaizkion, eta 2001ean Euskal Nafar Rallya irabazi zuen Fonchi gidariaren ondoan. «Egi bihurtutako amets bat izan zen», azaldu digu. Hala, afiziotik ofizio izatera pasatu zen bere kopilotu lana: «2004an hasi nintzen kobratzen».

Asfalto zein lur gainean ibiltzen da rallyan Goñi. Hagitz desberdinak diren bi modalitate dira, eta bat aukeratzekotan asfalto gainekoaren alde egin du: «hobeki moldatzen gara. Asfaltoarekin zuzen joan behar da, eta lur gainean inertziarekin jokatu behar da. Gidariak kontrakoa egin behar du, eta niri ez zait hori buruan sartzen».

#### 96.000 EUROKO AURREKONTUA

Ez da ez batere merkea rallyen mundua. Aintzane eta bere pilotuak, erra-

«1996an Eguzki Sportek Lesakan lehen rally sprinta antolatu zuen. Hura ikusi eta 'hurrengo urtean hor barrenean egon nahi dut', pentsatu nuen».

## «Jendeak erotzat jotzen gaitu eta 'ero' batzuei dirua ematea apustu haundia da»

- Emakumezkoetan hagitz ohikoa ez den ogibidea hautatu du Aintzane Goñi lesakari gazteak: kopilotu lana. 1997az geroztik horretan ari da, eta ofizio neketsua eta zenbaitetan arriskutsua dela onartu arren, horretan segitzeko gogoz dago.

- Espainiako Txapelketan hirugarren doaz sailkapen nagusian, eta oraindik bertze zortzi lasterketa gelditzen badira ere, podiumera igotzeko borrokatzeko prest daude.

- Gustuko ofizioa du, baina garestia: aurten 96.000 eurotik goitiko aurrekontua izanen dute. Autoa errentan hartutakoa dute, gainera, eta lasterketako 6.000 euro ordaindu behar dituzte.

terako, aurten 96.000 eurotik goitiko aurrekontua izanen dute. Autoa errentan hartutakoa dute, Mitsubishi evo 9 autoa, eta rally bakoitzeko 6.000 euro ordaintzen dituzte. Horren barne sartzen dira gurpilak –lur gainean sei eta asfaltoan zortzi–, gasolina eta izen emateko gastuak. Babesleak bilatzea ere ez omen da batere erraza: «jendeak erotzat jotzen gaitu, eta 'ero' batzuei dirua ematea apustu haundia da». Alde horretatik, aunitz dago egiteko, eta Formula 1ek adinako oihartzuna edukitzea zail ikusten badu ere, garbi du hedabideek rallyei erreparatzeak mesede haundia eginen lukela.

Auto andana probatu ditu Aintzane bere lanean: Citroën AX, Fiat Punto, Saxo, C2, Super 1.600 Fiat Punto, Mitsubishi evo 9... Baina bat aukeratzeko eskatuta berehala eman digu erantzuna: Peugeot 2007 Super 2.000.

Ofizio neketsua eta arriskutsua dela badaki, baina horri eusteko gogoz dago. Une honetan, Espainiako Txapelketan ari dira, lur gainean eta asfaltoan, eta zortzi lasterketen faltan, hirugarren dira sailkapen nagusian.

## HERRI KIROLAK

# Nafarroako hainbat txapelketa erabaki dira Iruñeko Sanferminetan

Emakumeetan Esther eta Maite Iriarte narbartearrak txapeldun txinga eta ingudearekin

## ttipi-ttapa

Azken urteotan bezala, Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatuta herri kirol saio andana jokatu ziren Iruñeko Sanferminetan. Horietatik aunitzetan Nafarroako txapelduna erabaki ziren. Eskualdeko kirolariek ere ez zuten hutsegini eta emaitza onak eskuratu zituzten.

**Maila Nagusiko Arpana Txapelketa**n, gizonetakoetan, Julen Txoperena igantziarra eta Iñaki Portu lesakarra laugarren gelditu ziren. Kanaerdiko enberrari 14 ebakietzanda eta lau zutik egiten 10:20ko denbora behar izan zuten.

Maila berean, baina emakumezkoetan, Izaskun Ariztegi eta Lourdes Galarregi etxalartarrek ezin izan zituzten Euskal Herriko txapeldunei aitzin hartu. Joan den urtean txapela lortu zuten, baina aurten txapeldunengandik 34 segundora gelditu ziren. 45 ontzako enberrari 10 korte etzanda ematen 11:57ko denbora egin zuten.

**Kadete mailako Nafarroako Arpana Txapelketa**n ere izan genuen eskualdeko ordezkaria. Basaburuako Beñat Gartxitorena eta Asier Gamio laugarren gelditu ziren. 7 minutu eta 7 segundoko denboran eman zizkieten metroko enberrari 10 epai.

**Nafarroako Lasto Altxatze Txapelketa**n, marka onak egin zituzten Igantziko lasto-altxa-



ARGAZKIA: ARANTXA ARIZTEGI

**Jabier Galarregi hirugarren izan da Nafarroako Orga Joko Txapelketa**n.

ztaileek. Iñaki Bereaunagusitu zen 21 jasoaldi egin ondotik, eta bigarrena Xabi Sein gelditu zen, altxaldi bat guttiago eginda. Hirugarren posturako lehia estua izan zen Oskar Telletxea eta Carlos Seinen artean, baina Telletxeak 19. jasoaldia ere egin zuen denboratik at segundo batera; Karlosek ez zuen jasoaldi hori egin eta laugarren gelditu zen bera, 18 jasoaldi egin ondotik.

**Nafarroako Harri-Jasotzeko Txapelketa**n, Unai Bertiz sunbildarrak jantzi zuen txapela, 5.812,5 kilo bizkarreratu, eta 100 kiloko alde aterata Leitzako Josetxo Urrutia bigarren sailkatuari. Jasoaldi bateko alde atera zion Bertizek Urrutiari. Eztabaida ere sortu zen. Izan ere, epai-leak 112,5 kiloko harriaren jasoaldi bat guttiago onartu zion Bertizi, eta plazan zen kamara bati esker baieztatu ahal izan

zuten Bertizek 13 jasoaldi egin zituela eta ez 12 jasoaldi. 112,5 kilokoaz gain, 125eko zilindroa eta 100ekoa jaso behar izan zituzten.

**III. mailako aizkolarien kanporaketa** ere Iruñeko Sanferminen barne jokatu zen. Bi kanaerdiko ebakiekin behar izan zituzten aizkolariek eta Patxi Mindegia zubieta-rrak egin zuen denborarik onena. Berarekin batera, Ruben Saralegi leitzarra, Julen Kañameres, Raul Castro urrotarra eta Oihan Larretxea beratarra sailkatu ziren finalerako.

**Motozerra Txapelketa**ren X. edizioan ere eskualdeko parte-hartzea izan zen. Oierregiko Esteban Arrutik lortu zuen txapela 12 puntu eskuratuta. Hirugarren sailkatua ere eskualdera etorri zen, Martin Agerrea arizkundarrarentzat izan zen, 10 puntu lortuta. Bigarren sailkatu zen Alayn

Salvadorrek ere puntuazio bera jaso zuen.

**Nafarroako Bi-Bitako Aizkora Txapelketa**n, Miel Mindegia eta Juan Jose Lopezek irabazi zuen, 22 segundoko alde aterata Floren Nazabal eta Daniel Vicenteri. Donato Larretxea eta Joxejuan Barberena hirugarren gelditu ziren. Aipatu, egun horretan, Donato Larretxeak gau osoa errepidean egin zuela, eta goizean heldu zela Iruñera. Izan ere, Malagan Timber Sport Txapelketa parte hartu zuen, Vicente eta Patxi Larretxearekin batera. Eurek hartu zituzten podiumeko lehen postuak; Vicentek lehenena, Donatok bigarrena eta Patxi hirugarrena.

**Nafarroako Orga Joko Txapelketa**n parte-hartzaile guztiak eskualdekoak izan ziren. Joseba Petriren beratarrak jantzi zuen txapela, eta ondotik sailkatu ziren Igor

Lasaga herrikidea, Jabier Galarregi etxalartarra, Josetxo Urrutia leitzarra, Mikel Pikabea beratarra eta Xabier Ariztegi etxalartarra.

**Txinga Eramate Txapelketa**n, emakumeetan Esther Iriarte narbartearrak jantzi zuen txapela, 22 plaza egin ondotik. Xanta Sousa lesakarrari bi plaza pasatxoko alde atera zion; Estibalitz Almandoz lesakarra gelditu zen hirugarren, eta Maite Bengoetxea urdazubiarra laugarren.

Gizonetakoetan, nagusitasun osoz gailendu zen Leitzako Mielanjel Sukuntza, 17 plaza eta 1,44 metro eginda. Jabier Galarregi etxalartarra bigarrena izan zen.

**Nafarroako Ingude Altxatze Txapelketa**n, gizonetan, jasoaldi bateko aldeaz jantzi zuen txapela Igantziko Xabier Seinek, bigarrena Joakin Aioroa iturendarra izan zen; Karlos Sein igantziarra hirugarren eta Josetxo Urrutia laugarren.

Emakumezkoetan, bi lagunak narbatearrak ziren: Maite Iriarte gailendu zen eta Ane Verde bigarren gelditu zen.

Txapelketa eta kanporaketaz gain, bertzelako erakustaldiak ere egin ziren: aizkorarekin Joxe Bikondoa eta Maika Ariztegi iturendarra aritu ziren, Miel Saralegi harriarekin, eta sokatira erakustaldian Amaiurko eta Lesakako neskak eta Amaiurko gizonetako parte hartu zuten.



# AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

### OSPAKIZUNAK

#### LEKAROZ

**Abuztuaren 29tik 31ra**, Gaztetzoen kulturarteko topaketa. Parte hartzeko deitu 948 581327 edo 679435174ra.

### IKASTAROAK

#### AMAIUR

**Uztailaren 30etik abenduaren 14ra**, Amaiur eta Nafarroako Erresumako Gazteluak-ei buruzko ikastaro teoriko-praktikoa. Informazio gehiago: [www.ueu.org](http://www.ueu.org) edo [www.aranzadi-zientzia.org](http://www.aranzadi-zientzia.org).

### ERAKUSKETAK

#### BERA

**Abuztuaren 1etik 17ra**, Itziar Mikelperezaren margo erakusketa Kultur Etxean, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.  
**Uztailaren 27a bitarte**, Rosendo Telletxearen beira erakusketa Kultur Etxean. Asteartetik igandera, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Igande arratsaldetan itxita.

#### ETXALAR

**Uztailaren 31 arte**, Zuhaitz zaharren erakusketa Kultur Etxean, 10:00etatik 13:30-era. Nafarroako Zuhaitz Zaharren Elkarteak antolatuta.

#### ELIZONDO

**Abuztuaren 17a bitarte**, Juan Carlos Olaetxea margolariaren erakusketa, Jaime Urrutia 20ko galerian. (11:00-14:00/18:00-21:00)

### FERIAK

#### ELIZONDO

**Uztailaren 26an**, Baztan-Bidasoako artisauen feria, Foruen Plazan.

## TELEBISTAKO TXOKOA



# Eskola Ibiltarian parte hartutako Iturengo ikasleak ttipi-ttapan

## ORTZIRAL HONETAKO ERREPORTAJEAN

Lesakako Sanferminak bukatu orduko bertzelako zereginetan murgildu zen **TTIPI-TTAPA TELEBISTA**. Hala, ortzirale honetan, uztailak 25, erreportajearen tartean, Eskola Ibiltariak egitasmoan parte hartu duten Iturengo neska-mutukoekin egonen dira. Espainiako Kultura Ministerioak antolatzen dituen Eskola Ibiltarien barne, maiatzaren 27tik ekainaren 2ra Almeria eta Granadan egon ziren Iturengo 5. eta 6. mailako ikasleak, baita Aresoko ikasleak ere. Leku aunitz ezagutzeko aukera izan zuten eta euren abenturen berri emanen digute ortziralean.

Gainerakoan, igandean, hilak 27, Beran eginen den La Miguel Indu-

rain lasterketako irudiak ere ikusgai izanen dira heldu den astetik aitzinera. Abuztuaren 1eko erreportajearen berriz, eskualdeko herrietan egiten ari diren udalekuei buruzko erreportajea emitituko da.

### BESTETAKO DVDK SALGAI

Urtero bezala, **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK** bestetako DVDak prestatu ditu. Doneztebeko Sanpedroetako eta Lesakako Sanferminetako saio berexiak ikusterik izan ez zuenak, edo ikusita ere, etxean gorde nahi duenak, oraindik badu aukera. Horretarako **TTIPI-TTAPAKO** 948635458ra deitu behar da. Etxera igortzea nahi izanez gero ere, bidaliko dira.

## DISKAK



### FABOREZ 02

TRIKITIXA ELKARTEA, 2008

laz Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak *Faborez* izeneko bilduma abian paratu zuen. «*Faborez*» neska dantzara ateratzeko eskaera zen garai bateko erromerietan. Baina dantzarako erreperitorio honetan ez dira soilik lotuko piezak ageri, fandangoak, arinarinak, trikitixak, porrusaldak eta kalejirak ere aurki daitezke. *Faborez 02* izenburupean belaualdi berriko jotzaile gazteak eta erreperitorio tradizionala batu dira. Oraindik diskorik kale-ratu ez duten bikoteak dira guztiak. Lau bikote bildu dira, soinu eta pandero hutsez eta bikote bakoitzak borts pieza grabatu ditu, guztira 20 pieza. Hauek dira musikariak: Urtzi eta Gorane Galdakaoko bikotea, Laja II.a eta Narbaiza Urolako ordezkariak, Baltzola anaiak Elgoibarko bikotea eta Gari eta Iñaki Zumarragako trikitixaren ondorengoak.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (ekainaren 27tik uztailaren 4ra bitarteko prezioak)



### ZERRIKIA

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 23,00 € (+1,00)

**Zerri gizena**  
1,250 € kilo. (-0,020)

**Zerramak:**  
0,510€ Kg/bizirik. (=)



### BEHIKIA

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,01 (=)

**1.koa** 3,71 (=)

**2.koa** 3,05 (=)

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,11 (=)

**1.koa** 3,81 (=)

**2.koa** 3,15 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**

urruak 130,00 (=)

idixkoak 198,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruak 108,00 (=)

idixkoak 130,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k

Sortuberriak: 3,10/3,20

Zaldi-behorrak: 1,73/1,93

**Bildotsak:** €/k

6-8 kilokoak: 5,70/6,50

8-10 kilokoak: 4,80/5,30

## JAKIN BEHARREKOAK

# Familiakoren bat hiltzean bizi-aseguruaren ziurtagiria eskatzeko aholkatu du Irahcek

laz indarrean jarri zenetik 2.131 lagunek eskatu dute Nafarroan

Apirila bitarte, Nafarroa osoko 2.131 lagunek eskatu zuten familiakide baten heriotzaren ondotik bizi-aseguruaren ziurtagiria. Erregistro hau joan den urtean paratu zuten indarrean, familiakoren bat hiltzen zenean, honek bizi-asegururik ote zuten jakinarazteko eta hala balitz kobratzeko eskubidea bermatzeko. Izan ere, ikerketek diotenez, heriotzak estaltzen dituzten polizen %10a ez da kobratzen, onuradunen informazio ezagatik. Gainera, aseguru-etxeak ez daude horren berri ematera behartuak.

Horren irtenbidea izan daiteke, beraz, mekanismo hau. Irahce Kontsumitzaileen Elkartea ere iritzi berekoa da, «eskubidea duen orok kobratu behar duelako



Irahce Kontsumitzaileen Elkartearen arabera, heriotzak estaliko dituen aseguruaren ziurtagiria eskatzea gomendagarria da.

aseguru».

Heriotza-ziurtagiria eta Justizia Ministerioaren web orritik jaitsi daitekeen eskaera orria behar dira horretarako, eta 3,40 euro ordaindu. Kobratu ahal izan den ala ez momentuan jakiteko Iruñeko Lurralde Kudeaketaren egoitzara joan be-

har da –Virgin del Puy kalea, 1–. Korreo bidez, ordea, erantzuna zazpi egun baino lehen ailegatuko da.

Informazioa nahi duten guztiek dute heriotzen estaldura aseguruaren ziurtagiria jasotzeko eskubidea. Heriotzaren kasuan, hildakoak aseguru kontratatua

ote zuten erraten du azken batean esku-bide honek, eta kontsulta hil ondoko 15 egun baldiodunetan egin behar da. Behin ziurtagiria eskuratu aseguru-etxeetara joan behar da, ahal izanez gero kalte-ordaina eskatzera.

Bertzalde, herentzia banaketa egiterako momentuan heriotzaren estaldura aseguruaren ziurtagiriak erakustera behartuak daude notarioak. Hartara, errazago jakinen dute hildakoen familiakoek kobratzeko eskubidea duten ala ez.

Espainiar estatuan, erraterako, egitasmo hau 2007ko ekainaren 19an indarrean jarri zenetik, 2008ko apirilaren 22a bitarte, horrelako 208.462 ziurtagiri banatu dira, eta gehienak notarioak eman dakoak izan dira.

## LIBURUAK



Souvenir

**Castillo SUAREZ**

ELKAR, 2008

«Arrainez gainezka dagoen akuarioari begira ezagutu zintudan. Eskutik heldu nizun eskumuturra hautsita. Marmokak odolusten direnean agertuko nintzela uste zenuen zuk, ordea. Zer da aurreratzea amore ematea baino. Zer da maitasuna musuan lehertzen den txikle bonba baino. Ekarri arropa alda diezaiogun, arrainak banan-banan nola hiltzen diren ikusten hasi baino lehen. Bizilagunen autoak leihotik zelatatu baino lehen». Horrela-

xe aurkeztu du Castillo Suarez idazle altsasuarrak bere azken liburua. Ez da bere lehendabiziko poema liburua, lehen ere argitaratu izan baititu. Aldi honetan, ordea, poema narratiboak aukeratu ditu, paragrafo luzeak. Bere hitzetan «postalak. Gainera, postalak souvenir bat dira», opariak, alegia. Harkaitz Cano, Gorka Urbizu, Ray Loriga eta Alejandra Pizernikeren aiupak ere erabili ditu liburuko zenbait atalen hasieratan.

# AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

### AUTOAK

#### BERA

**Uztailaren 26an**, 4x4 autoen ikuskizuna, Postan 16:00etan.

### DANTZAK

#### DONEZTEBE

**Uztailaren 24an**, Bidasoaldeko folklore jaialdia, 20:00etan.

### LESAKA

**Uztailaren 26an**, Bidasoaldeko folklore jaialdiaren saioa, 20:00etan.

### ETXALAR

**Uztailaren 27an**, Bidasoaldeko folklore jaialdiaren saioa, 12:30ean.

### BERA

**Uztailaren 28an**, Bidasoaldeko folklore jaialdiaren saioa, 20:00etan.

### BESTAK

#### BERA

**Abuztuaren 2tik 6ra**, Sanesteban bestak. Xehetasunak gehigarrian.

### GAZTELU

**Abuztuaren 1etik 4ra**, Santodomingo bestak. Xehetasunak 35. orrialdean.

### BEINTZA-LABAIEN

**Abuztuaren 1tik 5era**, herriko bestak. Xehetasunak 36. orrialdean.

### ZIGA

**Abuztuaren 8tik 11ra**, Sanlorentzo bestak. Xehetasunak 37. orrialdean.

### SUNBILLA

**Abuztuaren 9tik 14ra**, Santiburtzio bestak. Xehetasunak gehigarrian.

### LEITZA

**Abuztuaren 10etik 15era**, Santiburtzio bestak. Xehetasunak gehigarrian.



00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar da.  
Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da  
(nahi izanez gero argazkiarekin).  
8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzu berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

### ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

### GARAJEAK/LOKALAK

107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

### LURRAK/ORUBEAK

112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

### ZERBITZUAK

201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

### LANA

301. Eskariak
302. Eskaintzak

### IRAKASKUNTZA

401. Eskaintzak
402. Akademiak

### MOTORRA

501. Salerosketak
502. Tailerrak

### ANIMALIAK

601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

### DENETARIK

701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

### HARREMANAK

801. Agurrak

## ANZABAL INMOBILIARIA

### BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

### IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

### ZUGARRAMURDI.

- Baserria salgai 80.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatua bere lurrarekin salgai.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

### ETXEBIZITZAK

#### 101 Saldu

**LESAKA.** 229 m<sup>2</sup>ko familia bakarreko etxearen proiektua, lurrarekin eta lizentziarik salgai. Eremu urbanizatua ura, argia, urzikinen putzua... Promotorerik interesatua egonez gero, permutarako prest. 40 milioi Pta. ☎678 526091.



**ZUGARRAMURDI.** Bifamiliantzeko etxebizitza salgai, bakoitza 170m<sup>2</sup>koa. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela-jangela, itxitako garajea. 600m<sup>2</sup>ko lorategia. 295.000 euro. ☎615 744433.


**DONEZTEBEINGURUAN.** Etxe adosatu polita salgai. Sartzeko prest. ☎666044176.

**DONEZTEBE.** 100 m<sup>2</sup>ko pisua salgai Zazpigerutze auzoan. ☎639 184210.

**LESAKA.** Bittiria plazan pi-

sua salgai. Mobleztatua eta berritua, sartzeko prest. Egoera onean: Prezioa: 195.000 euro. ☎650 405532.

**OITZ.** Herri erdian hiru solairuko etxea salgai, terrazarekin. ☎665 756377.



### ETXEBIZITZAK 103 Errentan emateko

**TWIN PEAKS.** Familia euskaldun batek estudio bat errentan emanen luke epe motzetarako. San Frantziskoko Unibertsitatearen ondoan, leku lasaia eta autobus geltokitik hurbil. Harre-  
ra pribatua, bainugela, hozkailua, ohe-sofa, telebis-  
ta... [aupasf@gmail.com](mailto:aupasf@gmail.com).

**LUZ SAINT SAUVEUR (PIRINIOFRANTSESA).** 2-4 lagunentzako estudioa errentan emateko. Bizikleta, eskalada, rafting eta programatutako mendi irteeratarako aukera. Astebakoitzeko 300 euro. ☎647 228663.

### ETXEBIZITZAK 105 Etxe konpartituak

**IRUÑA.** Pisua osatzeko pertsona bat behar da. UPNAtik bartz minutura. ☎699637271 (Nekane).

### GARAJEAK/LOKALAK 107 Salgai

**LEITZA.** Sagastimarrea Kooperatiban garajea salgai. Itxia eta bi leiho ditue-  
na. ☎619 486276.

**LESAKA.** 20 m<sup>2</sup>ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. ☎659 609678.

**DONEZTEBE.** Herrigunean 135m<sup>2</sup>ko lokal komer-

tziala salgai edo errentan emateko. Leitzako errepidearen eta Urrotzerako errepidearen bidegurutzetan. Aparkalekuarekin. ☎687 736969/948 451783.

### LANA 301 Eskariak

**ARANTZA.** Ostalaritzan 20 urteko esperientzia duen gizona eskaintzen da. zonezkoak lan eginen luke. ☎948 634024 (Luis Mari).

**DONEZTEBEINGURUAN.** Garbitasunak egiteko neska eskaintzen da. ☎697570680.

**DONEZTEBEINGURUAN.** Garbitasunak egiteko neska eskaintzen da. ☎659294865.

**DONEZTEBEINGURUAN.** Arratsaldean eta aste hondarretan haurrak eta adinekoak zaintzeko edota garbitasunak egiteko neska eskaintzen da. ☎646902951.

### LANA 302 Eskaintzak

**ELIZONDO.** Ileapaindegibatean neska bat behar da lan egiteko. ☎948 452467.

**IRUN.** Ola sagardotegian mantenimenduan aritzeko langilea behar da. Sagastiak garbitzeko... ☎659 285620.

**BERA.** Ibardingo benta batean bi sukaldari laguntzailer behar dira. ☎629 086700.

**OITZ.** Fregaderan lan egiteko langilea eta zerbitzaria behar dira asteburuetarako. ☎948 451951.

**Begirale** tituludun pertsona behar da aterpe batean. Uztailaren 11tik 20ra. Udaleku itxiak. ☎628 947253.

**IBARDIN eta DANTXARINEA.** Enpresa batek frantse-  
sa dakien jendea behar du urte osoan Ibardin eta Dantxarineako lurrin-dendetan lan egiteko. Bidali curriculum

eta kametaren tamainako argazkia: [congresbas@congresbas.com](mailto:congresbas@congresbas.com) era edo deitu 944 106155 telefonora.

**BERA.** Ileapaindegibatean langilea behar da. ☎948631462.

**BERA.** Auzoa jatetxean langileak behar dira ostatuan eta jatetxean lan egiteko. ☎654 385363.

**LESAKA.** Atxaspi ostatuan zerbitzaria euskalduna behar da. ☎948 637536.

**BAZTAN, MALERREKA, BORTZIRIAK** aldean eraikuntzan aritzeko langile ofiziala eta peoia behar dira. Baldintza onak. ☎619469784.

### MOTORRA 501 Salerosketak

**Xsara HDI 1.9-90** zaldi salgai. Egoera onean, 2004ko urrikoa. ☎650 948330.

Honda CR **motorra** salgai, 250 cckoa. ☎666 146508.

**Suzuki GSXR 600** salgai. Extra aunitz. Latigillo metalikoak, tubo-eskapea LeoVince, kupula urdina eta abar. 29.000 km. Arrasgoera onean. ☎ 661 931727.

**Honda** markako bigarren eskuko **motorra** salgai. Dominator 650 cc. 47.000 kilometro eta egoera onean. ☎696 694405 (arratsetan).



**Peugeot 206 HDI** urdina salgai. 45.000 kilometro. 2003ko apirilkoa eta egoera onean. ☎617 076614. Enducrosseko **gas-gas motorra** salgai. 250 cc.

2004koa. ☎655 909478.

**Nissan Terrano 2.7 TDI** salgai. NA-AS. Egoera onean eta prezio negoziagarria. ☎679 432522.

**Nissan Terrano II** urdin metalizatua salgai. 87.000 kilometro, aire girotua. Egoera onean. 5.500 euro. ☎600 389350.

**TALLERES SANTESTEBAN**  
948 450282 • DONEZTEBE

**ESKAINTZAK**

Traffic 9 plazakoa, 2007koa  
Clio III 1.5 DCI, 2007koa  
Peugeot 307 1.6, 2005ekoa  
Scenic 1.5 DCI 105 CV, 2007koa  
Megane II 1.5 DCI 105 CV, 2007koa  
Kangoo Luxe 1.5 DIC, 2006koa

**BIGARREN ESKUKOAK**

Peugeot 406, Clio Confort 1.5 DCI, Citroen C-15 1.8 D, Renault Megane 1.6 90 CV, Kangoo 1.9 D, Opel Astra 1.7 TDI

**MOTORRA**

**502 Tailerrak**

**MENDAUR MOTOR**

948 450333 • DONEZTEBE

**SUZUKI**

(gasolina eta diesela)

**MITSUBISHI**

(luze eta laburrak)

**TURISMOAK**

**ANIMALIAK**

**602 Salerosketak**

Pastor aleman arrazako **zakurkumeak** salgai. ☎659 256848.

Collie arrazako nahasketako bi **zakurkume** salgai. Hilabete eta erdi. Baserrirako onak. ☎948 451645.

**Mutur horiko aharia** salgai, 4 urtekoa eta adarrik gabekoa. ☎948 634062.

Border Collie arrazako bi **zakurkume** salgai. ☎687 544646/ 948451833.

**DENETARIK**

**701 Galdu/aurkituak**

**BERA.** Betaurreko marroiak agertu dira Berako Mapfre aseguru-etxearen inguruan. ☎948 631014.

**BERA.** Alkaiagako trenbidearen inguruan bi giltza eta Renault Senperreko giltzatak galdu dira. ☎948 630881.

**LESAKA.** Albisturkarrikan, hiru giltza aurkitu dira: bat Citroenena, bertzea Suzuki autoarena (Mendaur Motor) eta bertzea etxebizitza batena. ☎620 771656.

**LESAKA.** Sanferminetan zakur bat galdu da. Ttikia, beltza, ile luzea eta larruz-

ko lepokoarekin. ☎948 627618/686 563540.



**DENETARIK**

**702 Salerosketak**

**Traktoreentzako gurdia** salgai. MMA, 3.000 kilo, 1,5 metroko zabalera eta 2 metroko luzera. Esku-freno eta bolketarekin. 450 euro. ☎645 013213.

Presako salmenta. Larruzko **sofa** marroia, eroso, 150 eurotan; **ohe-sofa** granate eta beltza bertapizatua, 150 eurotan; **kol-**

**txoia eta kanapea** 90x190cm, gutti erabilia, 100 eurotan; pertsona barentzako **besaulkia**, 30 eurotan. Guztiak Irunen ikusgai. ☎943 618424.



**Logela** salgai: 1,05 metroko ohea, koltxoia eta somierrarekin; 2 gau-mahai eta idaz-nahaia bere apartarekin. Gaztainarekin egina. ☎948 450950.

**Belar** idorren **boloak** salgai. ☎660 393436.

Aukera ezazu **ttipi-ttapa** laguntzeko proiektua **NAFARROAKO AURREZKI KUTXAREN**

**Zeuk aukeratzen duzu,**  
**zeuk erabakitzen duzu**

Proiektu zka.: **14640**

can

Zure aukeraketa bide hauek erabiliz egin dezakezu:

• Clavenet, Nafarroako Kutxako banku elektronikoa • Kutxazain automatiko berrietan • Bulegoetan, CANeko kudeatzaile pertsonal batek lagundurik • Bestela, bete ezazu argitara emanen diren lerro, jarduera eta proiektu guztiei buruzko argibide materialetako galdetegia, zehaztu zure erabakia eta bidali Nafarroako Kutxara.



Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,31€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratuzko, bidali kartazala zure helbidearekin.

[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)



**ENAITZ OTERMIN OSINALDE** leizarrak 2 urte beteko ditu abuztuaren 5ean. Zorionak eta muxu pila bat atta eta amaren partetik. Ongi pasal!



**NAROA OTAMENDI** beratarrak 3 urte beteko ditu uztailearen 26an. Zorionak pottola. Muxu pilo bat atta, ama eta bereziki Aneren partetik. Ongi pasal!



Sorgintxo tiki hauek, **SARA** eta **NAROAK**, 3 urte beteko dituzte uztailearen 7an eta 26an. Muxu haundi bat familia guztiaren partetik eta ongi pasa ospakizunetan, merezi duzue eta.



Zorionak Etxalarko gazte hauei **XANTIK** uztailearen 25ean eta **PERIKOK** abuztuaren 12an urteak beteko dituztelako. Segi dezatela orain bezalako sasoi eta umorearekin. Ikusten da zatoak eta trikitixak gizona gazte mantentzen duela!



**AIMAR MARTINEZ SEOANE** beratarrak uztailearen 31n 2 urte beteko ditu. Zorionak eta bi muxu atta eta amaren partetik.



**AIMAR MARTINEZ SEOANE** beratarrak uztailearen 31n 2 urte beteko ditu. Auniz urtez eta muxu haundi bat ataxi-amaxi eta osaba-izebaren partetik. Ongi pasa eguna!



**JULEN** eta **NAHIA ITURRIA GARCIA** beratarrek uztailearen 29an 4 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat ama, atta eta familia guztiaren partetik.



**LOLI** eta **ITSASOK** urteak beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat ama eta izebari Aimarren partetik.



Berako **GABRIEL AGIRRE ZELAIETAK** eta **XANTI AGIRRE GONZALEZ** aita-seekek urteak eginen dituzte abuztuaren 6an eta uztailearen 30ean. Zorionak eta muxu haundi bat Xanti eta Fatimaren partetik.




**XANTI AGIRRE GONZALEZ** beratarrek urtea beteko du uztailearen 30ean. Zorionak eta muxu haundi bat ama, atta eta ataxi-amaxien partetik.



**TIANE LARRETXE** beratarrek 5 urte beteko ditu uztailearen 30ean. Auniz urtez aita eta amatxoren partetik.



Aurtizko **AINARA ALTZURI MAKUSOK** 7 urte beteko ditu uztailearen 28an. Zorionak familiaren eta bereziki anaia Mikel eta lehen-gusu losu eta Olaiaren partetik.



Aurtizko **MIKEL ALTZURI MAKUSOK** 11 urte beteko ditu uztailearen 28an. Zorionak familiaren eta bereziki Ainara, losu eta Olaiaren partetik.



**IKER ARBURUA LEONIS** beratarrek 5 urte beteko ditu abuztuaren 2an. Auniz urtez ataxi eta amatxiren partetik. Muxu haundi bat eta ongi pasa eguna.



Zorionak Donamariako **URKORI** uztailearen 11n bere lehenengo urtea bete duelako. Ane, Oihan eta Eider.



Berako **IKER ARBURUA** 5 urte beteko ditu abuztuaren 2an. Zorionak ama, eta zure anaia loritzen partetik. Ongi pasa eguna.



**IKER LOIARTE OTXANDORENA** zubietarrak 4 urte bete ditu uztailearen 21ean. Zorionak eta muxu haundi bat, Esther eta bere familia.



**AUZA IPARRAGURRE ITURZAETA** gure *potolirik* urteak beteko ditu uztailearen 31n. Auniz urtez eta muxu haundi bat etxekoaren partetik.



Zorionak Berako **UNAI** uztailearen 31n 5 urte beteko dituelako. Ongi pasa eguna gure ehiztari tikiak!



**NAROA ARRIZURIETA TELLETXEAK** 3 urte bete ditu uztailearen 12an. Zorionak familiaren partetik, bereziki zure anaia Jonen partetik pinpoxa!



**EKHIÑE** eta **KEMENEK** uztailearen 20an eta 21ean urteak bete dituzte. Zorionak izeba, osaba eta amaxi Maritxuren partetik.



**KEMENE** eta **NAROAK** uztailearen 21ean eta 29an urteak beteko dituzte. Zorionak izeba, osaba eta amaxi Maritxuren partetik.



**KEMENE RUIZ ZAPIAINEK** uztailearen 21ean 2 urte bete ditu. Zorionak pottoto ama eta attaren partetik. 2 muxu haundi amona, attona eta amatxiren partetik.



Uda garaia alletu orduko urteak betetzen tuzzu sei urtekin neskatxa egina haunditzen ari zara zu berrendua ta opari pila tartean ehunka muxu mila zorion zuri **EKHIÑE** ta ongi pasa zazu.



Zugarramurdiko **BEGOÑA OLHAGARAY ALEMANEK** 40 urte bete ditu uztailearen 22an. Zorionak eta muxu haundi bat zure sorginen partetik.



Zubietako **IKER LOIARTE OTXANDORENAK** 4 urte bete ditu uztailearen 21ean. Auniz urtez! Familia eta bereziki Ekaitz, Naroa, Garazi eta Uxue.



**XABIER LARRETXE ALZUGARAI** lesakarrak uztailearen 29an 8 urte eginen ditu. Zorionak eta muxu haundi bat denen partetik.



**ION** eta **AITOR GALARDI TXOPERENA** lesakarrak 2 urte beteko dituzte abuztuaren 17an. Zorionak eta muxu pila bat familiaren partetik.



**IZASKUN** eta **MIKEL GALARDI TXOPERENA** lesakarrak 6 eta 8 urte beteko dituzte uztailearen 18an eta abuztuaren 13an. Auniz urtez familiaren partetik.



Eratsungo **JASONE** eta **GOIZEDER MINDEGIA BENITOK** abuztuaren 4an eta 21ean 9 eta 11 urte beteko dituzte. Zorionak Iturengo, Sarriguren eta Eratsungo familiaren partetik, bereziki ama, aita, Amagoia eta Enekoaren partetik.



deskontuak

DENDA HAUETAN EROSTEAGATIK

SEMPER

SEMPER AUTO-ESKOLA • BERA

%10eko deskontua matrikulan

NAFARPRESS

NAFARPRESS • ELIZONDO

%10eko dto liburu eta ikas materialetan

MAIMUR

MAIMUR liburu-denda • ELIZONDO

%10eko deskontua oparitzeko artikuluetan

TXIÑELKA

TXIÑELKA zapata-denda • LESAKA

%10eko deskontua

IPARLA  
kirolak

IPARLA Kirolak • ELIZONDO

%8ko deskontua 30€tik gorako gastuan

SARIDUNAK:

- 7 liburu (Elkar):  
Angel Garcia (Elizondo)
- Baztandarren Biltzarrako kamiseta eta zapia:  
Amagoia Susperregi (Lesaka)  
Ainhoa Arozena (Bera)
- Argiako kirolez badakit mahai jolasa:  
Fausti Juanikorena (Zubieta)  
  
Argia aldizkariaren 2 kamiseta:  
Lupe Mendigutxia (Bera)  
Aitor Arotzena (Lesaka)  
  
Argia aldizkariaren  
6 hilabeteko 2 harpidetza:  
Xabier Angulo (Bera)  
Marian Irazoki (Bera)
- Space Search (Ikastolen elkarte):  
Saioa Mitxelena (Bera)
- Txapela Buruan 2 kamiseta:  
Pilar Pabolleta (Bera)  
Josune Iturzaeta (Arizkun)
- Oninart 2 kamiseta:  
Ainara Mindegia (Aurtitz)

SENDAVIVA 4 sarrera  
Idoia Irazoki (Bera)

AQUARIUM 2 sarrera  
Arkaitz Genua (Leiza)

ORAIN [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)

bitartez ere parte har dezakezu. Animatu!

ESKATU ZURE TXARTELA

948 63 54 58

Zure erostenak ttipi-ttipiaren kolorezko irudi beldin bati, mezuak, jar zaitza, kanpamentuak, ttipi-ttipiaren FURUZAZOAKIN 948 63 54 58 telefonoa deitu.



ttipi txartela **rekin**  
beti irabazten da!

9 zozketa

PARTE HARTZEKO deitu  
asteleheneretik ostiralera  
09:00-16:00 Tel: 948 63 54 58



**1 ZAZPI LIBURU**  
Zer izango nait handian?  
Lurten-ikurteak!  
Maharaken katus (4 urte)  
Harpejolas (4-10 urte)  
Antzokupan (4-10 urte)  
Deduraren ederra (4-10 urte)  
Teerrikumeen abenturak (4-10 urte)  
Mamak biolomoda (4-10 urte)  
**Lote 1**  
balzabal  
[www.balzabal.com](http://www.balzabal.com)



**2 Kao Sumendiko Sekretua**  
PC-ROM  
**1 Lote**  
  
[www.elhuyar.com](http://www.elhuyar.com)



**3 Goiz edo arratsalde batean**  
Abentura parkea, tirolina, zuhaitz zirkuitua...  
**BI SARRERA**  
**Lote 1**  
Nafarroa Abentura  
[www.nafarroaaventura.com](http://www.nafarroaaventura.com)



**4 Piratak altxorraren bila**  
**MAHAI-JOKOA**  
**1 Lote**  
4 urteetik gorakoentzat  
2 jokalarit behar ditu.  
  
[www.aisia.net](http://www.aisia.net)



**5 KAMISETA**  
**2 Lote**  
  
[www.txapelaburuan.com](http://www.txapelaburuan.com)



**6 BI KAMISETA**  
**Lote 1**  
oninart  
[www.oninart.com](http://www.oninart.com)

ttipi saskia **TTIPI SASKIA**ren **ZOZKETAN**  
JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE  
Bidali SMSa idatziz **TTIPI SASKIA** eta zure **IZEN-DEITURA 5767** ra



**SENDAVIVA**  
Aventura y diversion para toda la familia  
**Lote 1**  
**4 sarrera**  
2 heldu+2 haur



**AQUARIUM**  
DONOSTIA  
943 44 00 99  
[www.aquarium.com](http://www.aquarium.com)  
**Lote 1**  
**2 sarrera**

Zozketan parte hartzeko epasa: urtarraren 24tik 30ra, irabazleen izenak irailaren 4ko aldizkarian argitaratuko dira. Mezuaren kostea 1.20€ (BEZ gabe). Zure datuak ttipi-ttipiaren fitxategian gorako dira surretartzean izenen diren eskaintzen berr emateko. Zuzenketa edo deustetapeneren bat egiteko deitu 948 63 54 58ra.



GIZABIDEZKO BANKA  
FESTAREKIN BAT MUGITZEN DA.  
**ONGI PASA EZAZU.**

can<sup>xf</sup>

**SALE**  
**ES**  
**OP**  
**AL**  
**OR**  
**PO**  
**NO**  
**CH**  
**ES**  
**JE**  
**RO**  
**CAN**  
**MA**  
**AM**  
**AN**  
**AN**

